

Zinema → EstreinaldiakCiro Petrone eta Marco Macor, *Gomorra* filmeko protagonistetako bi. BERRIA

Kamorrari buruzko begirada neorrealista bezain bortitza

Roberto Savianoren 'Gomorra' liburuan oinarrituta, film gordina zuzendu du Mateo Garronek

Aitor Abaroa

«Nire aitak errefusa ezin zezakeen eskaintza bat egin zion...». Francis Ford Coppolak 1972an zuzendu zuen *The Godfather* filma da, ziurrenik, mafiaren inguruan inoiz egin den filmik onena. Mario Puzoren *best seller*-a maisutasunez zinematu zuen Coppolak, mafiari abizena (Corleone) jarri mundu zabaleko imajinario kolektiboan. 36 urte geroago, Ameriketara aberastu zen *Capo*-aren lehengusu italiarra agertu da. Izan ere, eskaintza

errefusaezina zen Roberto Savianoren *Gomorra* liburua zeluloide bihurtzea.

Gomorra, filma, gaur estreinatuko da Hego Euskal Herriko zinema aretoetan. Matteo Garrone italiarrak zuzendu du, eta Savianok berak parte hartu du gidoiaren moldaketan. Liburuaren milioi eta erdi ale saldu dira dagoeneko, eta Savianok Italia utzi behar izan du kamorrak hilko duela mehatxu egin baitio.

Hasiera batean, *The Godfather* eta *Gomorra* filmek bide paraleloak daramatzatela dirudi. Bi filmak daude *best seller* banatan oinarrituta, bietan parte hartu dute liburuaren idazleek gidoiaren lanketan eta biak murgiltzen dira mafiaren barrenean. Argumetuei so eginez gero, ordea, bada lehen kolpean atzematen den ezberdintasun txiki bat. *The God-*

father-ek New Yorken kokatzen zuen istorioa nagusiki; *Gomorra*-k, aldiz, Napolin eta Casertan. Eta Italia AEBak ez den legez, Cinecittà ez da Hollywood. Bere

Napoli inguruetan bizi diren herritarrek egin dute aktore lana, filma sinesgarri egite aldera

Kamorrak milaka pertsonaren bizitza nola baldintzatu duen erakutsi nahi du filmak

garaian, eta Coppolaren filmari meriturik kendu gabe, ahots askok adierazi zuten *The Godfather*-ek ez ote zuen mafiaren irudi idealizatu eta erakargarriera erakusten. Puzoren liburua fik-

zioa zen eta Savianorena erreportaje literaturizatua da. Hala, *Gomorra*-k bere gordintasunean erakusten du kamorra napolitarak gizartean duen eragina.

Bost istorio dokumental.

Jatorrizko testuak eskatzen zue-nari jarraiki, Garronek dokumental kutsuko filma osatu du, mafiaren inguruko topiko eta klixeak alde batera utzita. Filmak «kamorra barrutik» erakusten duela adierazi du zuzendariak, eta, horretarako, «gera erreportajeetan» inspiratu dela; begirada neorrealistaz filmatu dute pelikula. Savianoren liburuari zintzo izate aldera, filmak bortitz erakusten du kamorraren biolentzia; biek ala biek, mafiak ezarritako legeak milaka pertsonen bizitza nola baldintzatu duen erakutsi nahi dute. «Azken 30 urteetan, Kamorrak 4.000 pertsona erail ditu, IRAk, ETAk eta Cosa Nostrak baino gehiago», adierazi du Savianok.

Filmak bost istorio ezberdin kontatzen ditu, bi ordu eta laurdeneko proiektzioan, modu paraleloan. Totok 13 urte ditu eta nagusi egiten ari da bizitzaren eskolan. Egun batean, atzera bueltarik ez duen erabakia hartu beharko du. Marco eta Cirok Brian de Palmaren film batean bizi direla uste dute, baina *sistema*-ren eguneroko lana oztopen dute gizagaixo bi baino ez dira. Pasquale jostun bikaina da, eta goi mailako arropa diseinatzaileentzako lan egiten du, tailer klandestinoetan. Napoli inguruko bizitzaren adibide batzuk baino ez dira.

Filma ahalik eta sinesgarritasun handienaz janzteko asmoz, aktore gehienak egoera euren azalean bizi duten herritarrek dira. Horietako bat, Giovanni Venosa izenekoa, adibidez, filma estreinatuta eta gutxira atxilotu zuten, filmean egiten duen papez gain, benetako bizitzan ere uestezko gazkile izateagatik.

Lehenengoz, Cannesko zinemaldian ikusi zen filma iragan maiatzean, eta epaimahaiaren sari nagusia eskuratu zuen. Bestalde, Italiak Oscar sarietara bidaliko duen filma da *Gomorra*.

Haur desagertuen inguruko istorioa Clint Eastwooden azken filmean

Angelina Jolie du protagonista 'The Changeling' filmak; benetako gertaeretan oinarrituta dago

A. A.

Los Angelesko (AEB) gizartea astindu zuten 1928 eta 1830 urteen bitartean Winevilleko oilategiko hilketak zeritzen krimenek. Hainbat ume desagertu ziren, baita batzuk hilik agertu ere. Kasu haiek Los Angelesko polizia departamentuan zegoen ustelkeria bistaratu zuten. *The Changeling* Clint Eastwooden azken filmak orduan gertatutakoak kontatzen ditu. Ipar Euskal Herrian herenegundik dago ikusgai zinema aretoetan.

Angelina Jolie du protagonista Eastwooden azken filmak. Jolie Christie Collinsen azalean sartzen da. Lanetik bueltan, Christie konturatzen da Walter, bederatzit urteko semea, desagertu egin dela. Polizia egiten ari den ikerketekin ez da gustora izango Christie eta Briegleb apaizaren (John Malcovich) laguntzarekin, bere bidetik ekingo dio Walter bilatzeari.

Polizia ustelkeria

Poliziak umea aurkitu duelakotan, beste mutiko bat emango diote Christieri. Umeari uko egitean zorrotzat joko dute Christie. Ikerketak egin ostean, protagonista konturatuko da polizia ustelduta dagoela, eta aurre egingo die poliziaburuari zein alkateari. Istorio honen bidez, Eastwoodek erakusten du Debekuaren garaiko Los Angelesen emakume batek sistemari aurre egitea eta bizirik jarraitzea nekez batera zitezkeen egoerak zirela.

bihar berria



PATXI ZUBIZARRETAREN

'Mundua lo dagoen bitartean'

nobelaren aurrerapena

